<p>Ez du uste betebehar zailak direnik erakunde txikientzat; izan ere, gehienak partzuergoren batean daude. Horrek konpondu egiten du dokumentazio hori eskura izateko beharrezko den babes teknikoaren falta.</p>	<p>No considera que se trate de requisitos gravosos para los entes menores puesto que la mayoría se encuentran consorciados. Este hecho solucionaría la falta de apoyo técnico necesario para disponer de esa documentación.</p>
<p>Lurraldeen arteko elkartasuna udalerrri batetik baino gehiagotik doazen eroanbideei aplikatuko zaie, eskatzaileari eragiteaz gain, beste interesatu batzuei ere eragiten dietenean.</p>	<p>Respecto a la solidaridad territorial será de aplicación a conducciones que transcurren por más de un municipio y que repercutan a otros interesados más allá del solicitante.</p>
<p>Iñaki Fernández de Larrea Sáez de Asteasu jaunak, EHNEren izenean, esan du ez daukala zirriborroa, eta galdetu du bertan sartuta dauden ureztatze-sareak.</p>	<p>D. Iñaki Fernández de Larrea Sáez de Asteasu, en representación de EHNE indica que no dispone del borrador, y pregunta si se incluyen en el mismo las redes de regadío.</p>
<p>Tomás Epalza jaunak erantzun du ez daudela sartuta ureztatzeko urak, eta hornikuntza-urentzat baino ez dela.</p>	<p>D. Tomás Epalza responde que no se incluyen aguas para regadío, es exclusivo para redes de aguas de abastecimiento.</p>
<p>Bernardo Catón jaunak 8.j artikulua aipatu du, eta esan du ez duela egoki ikusten, administrazioei ezin zaielako zigor penalik ezarri.</p>	<p>D. Bernardo Catón hace referencia al artículo 8.j que considera que no es oportuno puesto que no se puede sancionar penalmente a las administraciones.</p>
<p>Tomás Epalza jaunak ekarpen horrekin ados dagoela esan du.</p>	<p>D. Tomás Epalza muestra su acuerdo con esta aportación.</p>
<p>Alfonso García jaunak 8.h artikulua aipatu du, eta esan du, administrazioek, erakunde biziak diren heinean, beti izan dezaketela zorren bat, eta hori dela-eta oso zaila izan daitekeela baldintza hori betetzea.</p>	<p>D. Alfonso García haciendo referencia al artículo 8.h indica que las administraciones como entes vivos siempre pueden tener alguna deuda, esto implica que puede resultar muy difícil cumplir este requisito.</p>
<p>Miguel Ángel Muñagorri Etxabe jaunak, Txingudi, SA enpresako Zerbitzuetako gerenteak, 8.b artikulua aipatu du, aurkeztu beharreko proiektuak oniritzia behar duela esaten duena. Horrek arazoak ekar ditzake, askotan administrazio edo erakundeak berak idatzitako proiektuak aurkezten baitira, eta ez baitzaie oniritzirik ematen.</p>	<p>D. Miguel Ángel Muñagorri Etxabe, Gerente de Servicios de Txingudi, S.A. hace referencia al artículo 8.b donde se dice que el proyecto a presentar debe estar debidamente visado. Esto puede plantear problemas puesto que en muchos casos se ejecutan proyectos redactados por la misma administración o entidad y no se realiza el visado.</p>
<p>Tomás Epalza jaunak ekarpen horrekin ados dagoela esan du, batez ere funtzionarioek idatzitako edo izenpetutako proiektuei dagokienez.</p>	<p>D. Tomás Epalza muestra su acuerdo con esta aportación, en especial para proyectos redactados o suscritos por funcionarios.</p>
<p>Miguel Ángel Muñagorri jaunak ekimena zoriondu du, baina uste du dirulaguntzarako guztira egon daitekeen kopurua eskasa izan daitekeela.</p>	<p>D. Miguel Ángel Muñagorri felicita la iniciativa sin embargo considera que el montante total disponible para el paquete de ayuda puede ser escaso.</p>
<p>Iñigo Elósegui Vallejo jaunak, Gipuzkoako Ur Partzuergoko gerenteak, adierazi du lan mota hau askotan sozietate instrumentalen bidez egiten dela, eta esan du ez dakiela arazoren bat egon daitekeen.</p>	<p>D. Iñigo Elósegui Vallejo, Gerente del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa indica que en muchos casos se realiza este tipo de trabajo mediante sociedades instrumentales y plantea la duda de si puede generarse algún tipo de problema.</p>
<p>Tomás Epalza jaunak esan du aginduaren asmoa arazoak konpontzea dela, eta ez oztopoak jartzea. Era berean, uste du zirriborroa hobetu egin daitekeela, eta ekarpenak idatziz egiteko eskatu du.</p>	<p>D. Tomás Epalza comenta que la voluntad de la orden es resolver problemas y no plantear trabas. De igual manera considera que el borrador es mejorable y solicita que se realicen aportaciones por escrito.</p>
<p>Ibon Areso Mendiguren jaunak, Bilbao-Bizkaia Ur</p>	<p>D. Ibon Areso Mendiguren, Presidente del Consorcio de</p>

<p>Partzuergoko lehendakariak, zalantza adierazi du 13. artikuluan (esleipenerako irizpideak) adierazitakoa udalaz gaindiko erakunde bati aplikatzeari buruz, batez ere d idatz-zatiari dagokionez, hau da, agenda 21eko prozesuetan parte hartzeari dagokionez.</p>	<p>Aguas Bilbao Bizkaia muestra su duda sobre la aplicación a una entidad supramunicipal de lo indicado en el artículo 13, criterios de adjudicación, en particular el punto d, donde que hace referencia a la participación en procesos de agenda 21.</p>
<p>Miguel Ángel Muñagorri jaunak ere gauza bera esan du.</p>	<p>De igual manera se expresa D. Miguel Ángel Muñagorri.</p>
<p>Lehendakariak zalantza argitu du, esanez jarduera azkenean udalerrri zehatz batean gauzatuko dela, eta udalerrri hori izango dela agenda 21eko prozesuetan parte hartzen duena edo ez.</p>	<p>La Presidenta resuelve la duda diciendo que la actuación finalmente será en un término municipal concreto y que será este el que esté implicado o no en procesos de agenda 21.</p>
<p>Ibon Areso Mendiguren jaunak uste du lehendakariak emandako argibidea bigarren mailako sareetarako baino ez dela baliagarria, eta ez lehenengo mailako sareetarako.</p>	<p>D. Ibon Areso Mendiguren, considera que la aclaración de la Presidenta es válida en el caso de redes secundarias, no así para redes primarias.</p>
<p>Gai honi dagokionez ez da partehartze gehiagorik egon, eta hurrengo aztergaiaz hitz egiteko aukera zabaldu da.</p>	<p>No se realizan más intervenciones y se pasa al siguiente punto del día.</p>
<p>Gai-zerrendako bosgarren aztergaia: Uraren Esparru Zuzentzarauaren planifikazio-prozesuan parte hartzeko programa, egutegia eta formulak.</p>	<p>Quinto punto del orden del día: Programa, Calendario y Fórmulas de Participación del Proceso de Planificación Hidrológica de la Directiva Marco del Agua.</p>
<p></p>	<p></p>
<p>Lehendakariak hitza eman dio José María Sanz de Galdeano Equiza jaunari, Uren Zuzendaritzako Plangintza Hidrologikorako Unitateko buruari.</p>	<p>La Presidenta cede la palabra al Responsable de la Unidad de Planificación Hidrológica de la Dirección de Aguas, D. José María Sanz de Galdeano Equiza.</p>
<p>José María Sanz de Galdeano jaunak gogorazi du aurkezten den agiria, <i>Uraren Esparru Zuzentzarauaren planifikazio-prozesuan parte hartzeko programa, egutegia eta formulak</i> izenekoa, deialdiarekin batera bidali zitzaieela batzordekideei.</p> <p>Horrez gain, jakinarazi du bilkura honetan banatutako dokumentazioan prozesuan parte har dezaketen eragileen zerrenda gehitu zaiola.</p>	<p>D. José María Sanz de Galdeano recuerda que el documento que se presenta, Programa, Calendario y Fórmulas de Participación del Proceso de Planificación Hidrológica de la Directiva Marco del Agua, fue facilitado a los vocales junto con la convocatoria. Por otro lado, informa que en la documentación distribuida en esta sesión se le ha añadido un listado de agentes potenciales participantes en el proceso.</p>
<p>Uraren Esparru Zuzentzarauak (2000/60/EB) agiri horren beharra ezartzen du formalki. Aldirik garrantzitsuenetarikoa da partaidetza publikoari erantzuna emateko orduan. Batzordearen oniritzi formala jaso behar du bilkura honetan, prozesuari hasiera eman ahal izateko Esparru Zuzentzarauaren kronogramari jarraituz, eta horrela horren helburuetako bat lortzea ahalbidetzeko, hau da, Plangintza Hidrologikoa egin ahal izatea ahalbidetzeko.</p>	<p>La Directiva Marco del Agua (2000/60/CE) establece formalmente la necesidad de este documento. Constituye una de las etapas relevantes en respuesta a la participación pública. Debe recibir la conformidad formal del Consejo en esta sesión para que el proceso se inicie siguiendo el cronograma de la Directiva Marco, y así permitir conseguir uno de los objetivos de la misma, es decir, la elaboración del Plan Hidrológico.</p>
<p>Jarraian azaldu du agiria Euskal Autonomia Erkidegoko barne- aroen arloari dagokiola, horrela jaso baitzen eskualdatzea; hala ere, agiriak berak proposatzen du partaidetzarako ahalegina zabaltzea EAE barruko gainontzeko planifikazio esparruetara, dagozkion Ur-Konfederazioekin koordinatuta.</p>	<p>Pasa a explicar que el documento formalmente se refiere al ámbito de las Cuencas Internas del País Vasco, puesto que así se recibió la transferencia; sin embargo, el propio documento plantea ampliar el esfuerzo de participación al resto de ámbitos de planificación dentro de la CAPV en</p>

	coordinación con las correspondientes Confederaciones Hidrográficas.
Gogorarazi duenez, 2000/60/EB Zuzentarauaren arabera, bertan zehaztutako plangintza hidrologikoa 2009ko abenduaren 31rako bukatuta egon behar da. Prozesu horrek, besteak beste, Gai Garrantzitsuen Eskema izeneko agiria sortzea dakar, bai eta Plangintza Hidrologikorako Proiektua ere, neurrien programa jasotzen duena. Plangintza prozesu hori dagokion ingurumen ebaluazio estrategikoarekin gainezarri behar da, 2001/42/EB Zuzentarauarekin bat etorritik, eta gainera partaidetza publiko nahikoa ere izan behar du.	Recuerda que según la Directiva 2000/60/CE el plan hidrológico que se define en ella debe estar concluido el 31 de diciembre de 2009. Este proceso implica, entre otros, la generación del documento denominado Esquema de Temas Importantes y el Proyecto del Plan Hidrológico que incluye el programa de medidas. Este proceso de planificación debe imbricarse con su pertinente evaluación ambiental estratégica, de acuerdo con la Directiva 2001/42/CE y además con la presencia de una suficiente participación pública.
Azaldu du partaidetza publikorako beharrezko den lehen urratsetako bat parte hartuko duten eragileak identifikatzean datzala, eta horretarako eman zaiola eragile izan daitezkeen zerrenda. Halaber, partaidetzarako hiru ardatza proposatzen direla azaldu du:	Informa que uno de los primeros pasos necesarios para la participación pública consiste en identificar los agentes participantes, y que a tal efecto se le ha pasado un listado de potenciales agentes. Así mismo explica que se plantean tres ejes de participación:
<ul style="list-style-type: none"> • eskura egotea, eta <u>partaidetza publiko irekia</u> (web orria), hau da, herritarrentzako irekita dagoen ataria 	<ul style="list-style-type: none"> • <u>acceso y participación pública abierta</u> (página Web) que es un portal abierto a la ciudadanía
<ul style="list-style-type: none"> • <u>Gizarte eragileen partaidetza lurraldeka</u> (Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Lurralde Bulegoen hiru jarduketa-esparruak). Batzordekideei eskatu zaie emandako zerrendaren gaineko ekarpenak egiteko 2007ko urtarrila amaitu aurretik. 	<ul style="list-style-type: none"> • <u>participación de agentes sociales por reparto territorial</u> (los tres ámbitos de actuación de las Oficinas Territoriales del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio). Se solicita a los vocales aportaciones respecto al listado facilitado antes de finales de enero de 2007.
<ul style="list-style-type: none"> • <u>Gizarte eragileen partaidetza jarduera-sektoreka</u> (energia hidroelektrikoa, nekazaritza eta abeltzaintza, hornikuntza eta saneamendua, industria eta ur ingurunea, eta uretako ekosistemak). Uste du Batzordean ordezkariak duten sektoreak eurak izan behar direla partaideen inguruko proposamena luzatu behar diotenak Uren Zuzendaritzari edo Batzordeko Lehendakariari, partaidetza prozesua eraginkorra izateko. Batzordekideei eskatu zaie partaideen inguruko ekarpenak egiteko jarduera-sektore bakoitzerako 2007ko urtarrila amaitu aurretik. 	<ul style="list-style-type: none"> • <u>participación de agentes sociales por sectores de actividad</u> (energía hidroeléctrica, agropecuario, abastecimiento y saneamiento, industria y medio hídrico y ecosistemas acuáticos). Considera que los propios sectores representados en el Consejo deben ser los que hagan una propuesta de participantes a la Dirección de Aguas o a la Presidencia del Consejo para que sea eficaz el proceso de participación. Se solicita a los vocales aportaciones de participantes para cada sector de actividad enunciado antes de finales de enero de 2007.
Jarraian, partaidetza publikoa gauzatzeko proposatutako lan-mekanismoa erreparatu du, hau da, hasteko dokumentazioa, eztabaidarako tailerrak, azken dokumentazioa, eta abar. Lan horietarako ezarritako egutegia erreparatu du.	Continúa repasando el mecanismo de trabajo propuesto para la ejecución de la participación pública, es decir, elaboración de documentación de partida, talleres de debate, documentación final, etc. Repasa el calendario establecido para estos trabajos.
Batzordekideei eskatu die lurraldeen partaidetzarako eman den eragileen zerrenda erreparatu, handitu edo aldatzeko, bai eta jarduera-sektoreka parte hartzeko proposamenak egiteko ere, eta gogorarazi die partaidetza irekia proposatzen dela eta sektore asko ordezkariak egotea nahi dutela.	Invita a los vocales a repasar, ampliar o modificar el listado facilitado de agentes para la participación territorial; y por otro lado a que realicen sus propuestas para la participación por sectores de actividad, recordando que se plantea una participación abierta y buscando amplia representatividad de sectores.

<p>Azalpenari amaiera emateko, esan du Batzordeak oniritzia eman beharko liokeela agiri honi prozesua era egokian hasi ahal izateko.</p>	<p>Finaliza su exposición diciendo que el Consejo debería dar la conformidad a este documento para que el proceso se pueda iniciar adecuadamente.</p>
<p>Lehendakariak eskerrak eman dizkio José María Sanz de Galdeano jaunari, aurkezpena egiteagatik, eta ondoren, hitz egiteko txanda ireki du, azaldutako gaiari buruzko ekarpen edo galderak egin ditzaten parte hartzaileek.</p>	<p>La Presidenta, tras agradecer a D. José María Sanz de Galdeano la presentación realizada, abre un turno de palabra para que los vocales realicen aportaciones o preguntas sobre el tema expuesto.</p>
<p>Adolfo Morais Ezquerro jaunak, Garrio eta Herri Lan saileko Meteorologia eta Klimatologia zuzendariak, adierazi du ez dakiela eragileen zerrenda zelan egin den, eta eskatzen du Eusko Jaurlaritzako Meteorologia zerbitzuak eramatea gai honetan ordezkaritza, Eusko Jaurlaritzari dagozkiolako bai Plangintza Hidrologikoa, bai EAeko iragarpen eta ikuskaritza meteorologikoen ardurua duen Euskalmet.</p>	<p>Adolfo Morais Ezquerro, Director de Meteorología y Climatología del Departamento de Transporte y Obras Públicas, indica que desconoce como se ha realizado el listado de agentes, y solicita que el representante en esta materia sea el Servicio Meteorológico del Gobierno Vasco puesto que este Plan Hidrológico es un plan del Gobierno Vasco y este dispone de Euskalmet, que realiza las labores de vigilancia y predicción meteorológica para la CAV</p>
<p>Ibon Areso Mendiguren jaunak gogoz azpimarratu du ez dela nahikoa plangintzaz hitz egitea, eta eraginkortasunez gauzatu behar direla beharrezko diren jarduerak. Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak saneamendu arloan egindako ahalegin handia nabarmendu behar da. Halaber, adierazi du hornikuntza-sistema gero eta ahulagoa dela, hau da, lehorte edo ur-murrizketa egoeretatik itzultzeko aldiak gero eta laburragoak direla. Egoera hori aspaldi ezagutzen badugu ere, iragarritako plangintza ez da gauzatu neurri zehatzetan, beste gauza batzuen artean hornikuntza nahikoa bermatuko dutenetan.</p>	<p>D. Ibon Areso Mendiguren incide vehementemente en que no basta con hablar de planificación sino que es preciso realizar más eficazmente actuaciones que son necesarias. Hay que plasmar el gran esfuerzo de saneamiento realizado por el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, asimismo indica que el sistema de abastecimiento es cada vez más frágil, es decir, cada vez los periodos de retorno de situaciones de sequía o de restricciones son cada vez más cortos. Esta situación ya se conoce desde hace tiempo, y sin embargo la planificación anunciada no se materializa en medidas concretas, que entre otras asegure un abastecimiento suficiente.</p>
<p>Iñaki Antigüedad Auzmendi jaunak adierazi du gertutik jarraitzen duela Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak sortutako dokumentazioa, eta gogorarazi du orain denbora asko egondako lehortean Liburu Zuria idazteko beharra zegoela esan zela; Liburu Zuri horretan aztertuko ziren dauden hutsuneak, eta, beraz, horiek konpontzeko bideak ere bai. Hala ere, Liburu Zuri hori oraindik ez da idatzi. Esan du seguru asko Zadorrako sistema ahula dela, eta pentsatu beharko genukeela ahultasun hori norainokoa izango litzatekeen hemendik urte batzuetara klima-aldaketaren eragina kontuan hartuta. Azpimarratu duenez, eskuragarri dagoen ur baliabideaz arduratzeaz gain, beharrezko izango litzateke eskaeraren kudeaketa egokiaz arduratzea baliabide hori jasotzen duten udaletan. Liburu Zuri hori idatzi ez izana kritikatu du; izan ere, erabilgarria izango litzateke partaidetza eta planifikazio prozesu batean, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren jarrera erakutsiko bailuke.</p>	<p>D. Iñaki Antigüedad Auzmendi indica que sigue de cerca la documentación generada por el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, y recuerda que en la sequía habida hace tiempo se informó de la necesaria redacción de un Libro Blanco que analizaría las deficiencias existentes y por tanto las vías de solución, sin embargo, ese Libro Blanco no se ha redactado. Afirma que seguramente el sistema Zadorra es débil y que debería plantearnos hasta que punto lo sería dentro de años con los efectos del cambio climático. Incide en que además de preocuparse por una fuente mayor de recurso hídrico disponible, sería necesaria una preocupación por una correcta gestión de la demanda en los ayuntamientos receptores de ese recurso. Critica la no redacción de ese Libro Blanco, puesto que sería de utilidad en un proceso de participación y de planificación puesto que mostraría la postura del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia.</p>
<p>Ibon Areso Mendiguren jaunak azaldu du ez dela urik galtzen</p>	<p>D. Ibon Areso Mendiguren expone que no existen fugas en la</p>

<p>Partzuergoaren menpeko sare nagusian. Gaineratu du oso garrantzitsua dela udalen ahalegina bigarren mailako sareetan urik ez galtzeko orduan. Bere ustetan, hornikuntzaren ahultasuna benetako arazoa da, eskaeraren kudeaketa eskasaren inguruko topikotik harantzago eta kudeatzaileen aldetik nahikoa ez diren ahaleginetatik harantzago doan arazoa, hain zuzen, agian benetako datuak ez ezagutzeak eraginda.</p>	<p>red primaria que depende del Consorcio. Añade que el esfuerzo municipal en evitar pérdidas en redes secundarias es muy importante. El problema de fragilidad del abastecimiento en su opinión es un problema real, más allá del tópico de una gestión deficiente de la demanda y de esfuerzos insuficientes por parte de los gestores, tal vez por el desconocimiento de los datos reales.</p>
<p>Iñaki Antigüedad Auzmendi jaunak adierazi du jakin nahiko lukeela zergatik ez zen idatzi Liburu Zuri hori, hornikuntza-sistemaren ahultasuna konpontzeko neurriak jaso zitzakeena. Eskaeraren kudeaketari dagokionez, egindako ahaleginak onartu ditu, eta esan du datuak berriro aztertuz gero ur gutxiago galdu dela ikus daitekeela; hala ere, gaineratu du eskuragarri dauden datuak aztertuta, gehiago ere egin daitekeela. Adierazi du datu horiek ez direla homogeenak, eta eskuragarri ere ez daudela, beraz, diagnosi zuzena egitea, eta hortaz, bilakaeraren azterketa egitea zaila dela.</p>	<p>D. Iñaki Antigüedad Auzmendi indica que desearía conocer porqué no se redactó ese Libro Blanco con posibles soluciones para la fragilidad del sistema de abastecimiento. Respecto a la gestión de la demanda reconoce los esfuerzos realizados y que efectivamente revisando los datos se dan menores pérdidas; y añade que aún se puede hacer mucho más tras analizar los datos disponibles. Incide en que estos datos no son homogéneos ni accesibles con lo que resulta difícil realizar un diagnóstico correcto y por tanto un análisis de la evolución.</p>
<p>Ibon Areso Mendiguren jaunak berriz adierazi du eskaeraren kudeaketaren inguruko kezka handia dagoela partzuergo barruko udaletan, baina eskaeraren kudeaketarekin soilik ez dela konpontzen hornikuntza-sistemaren ahultasuna.</p>	<p>D. Ibon Areso Mendiguren se reafirma en que existe una gran preocupación por la gestión de la demanda en los ayuntamientos consorciados, pero que solamente con la gestión de la demanda no se soluciona la vulnerabilidad del sistema de abastecimiento.</p>
<p>José Antonio Zabala Larrinaga jaunak azaldu du beharrezko dela bereiztea eskaintzaren kudeaketa (sareak ikuskatzea...) eta eskaeraren kudeaketa, gizarteari begira egiten dena (aurrezteko planak...). Iñaki Antigüedad jaunari gogorarazi dio AMVISAK urtero argitaratzen duela uraren erabilerari buruzko datu zehatzak jasotzen dituen memoria.</p>	<p>D. José Antonio Zabala Larrinaga expone que es necesario diferenciar entre gestión de la oferta (vigilancia de las redes...) y de la demanda que se hace de cara a la sociedad (planes de ahorro...). Recuerda a D. Iñaki Antigüedad que AMVISA publica anualmente una memoria con datos concretos sobre el uso del agua.</p>
<p>Miguel Ángel Muñagorri Etxabe jaunak baietsi egin du hornikuntza-sistemaren ahultasunari buruz egin den diagnosis, eta horrek esan nahi du arazo hori konpontzen zaila izan daitekeela, eta arrisku handia ere izan dezakeela. Adostasuna azaldu du eskaeraren kudeaketa hobetu behar diren inguruan, baina gogorarazi du arazoa zaila dela, epe luzera begirakoa, eta inbertsio handiak egitea eskatzen duena, dauden bigarren mailako sareak zaharrak eta nahasiak direlako eta ia kontrolatu gabe daudelako. Azpimarratu du hori ez dela gertatzen sare nagusian, horrek konponbide errazagoa baitauka. Esan du epe luzerako eskaeraren kudeaketa ezin hobeak ez duela ziurtatzen sistemen ahultasunaren inguruko arazoa, lehortealdiak luzeagoak direlako eta urtegien bidez erregulatzeko gaitasuna mugatua delako.</p>	<p>D. Miguel Ángel Muñagorri Etxabe avala el diagnóstico de sistemas de abastecimiento frágiles, que implica que se convierta en un problema de difícil solución y con un alto riesgo. Muestra su acuerdo respecto a una necesaria mejora en la gestión de la demanda, pero recuerda que es un problema complejo, a largo plazo y que implica inversiones muy importantes, puesto que se dispone de redes secundarias viejas y complejas que apenas tienen controles. Incide en que este no es el caso de la red primaria que es de solución más fácil. Afirma que una gestión de la demanda óptima a largo plazo no asegura que se resuelva el problema de fragilidad de los sistemas por la existencia de períodos de sequía más prolongados y capacidad limitada de regulación por embalses.</p>
<p>Alfonso García Alonso jaunak bat egin du Ibon Aresok egindako diagnosiarekin, eta berretsi egin gu Bilbao-Bizkaia Ur</p>	<p>D. Alfonso García Alonso coincide en el diagnóstico dado por Ibon Areso, y ratifica el gran esfuerzo inversor en renovación y</p>

<p>Partzuergoko udaletan bigarren mailako sareak berritzeko eta mantentzeko inbertsio aldetik egin den ahalegin handia.</p>	<p>mantenimiento de redes secundarias en los ayuntamientos del Consorcio de Aguas de Bilbao- Bizkaia.</p>
<p>Bernardo Catón jaunak, larrialdietarako azpiegituren inguruan, galdetu du horiek funtzionalak diren ala kontrol motaren bat daukaten.</p>	<p>D. Bernardo Catón pregunta sobre las infraestructuras de emergencia, si son funcionales o si se someten a algún tipo de control.</p>
<p>José Antonio Zabala jaunak AMVISAREN eragin-eremuan daudenen inguruko erantzuna eman du, eta esan du Subijanako akuiferoari dagokionez hodiaren zati batek bat egiten duela hondakin-uren araztegitik (HUA) datorrenarekin, eta Arratoko ureztatzaileen mankomunitateak erabiltzen duela; beraz, desinfektatzeko protokoloa proposatu dela, bai eta presio-probak ere... Araiako hartuneari dagokionez, Udalak baimena emateko zain daude, zati bat konpontzeko, eta gainontzekoa erabilgarri dago.</p>	<p>D. José Antonio Zabala responde respecto a las correspondientes a la zona de influencia de AMVISA, y dice en el caso del acuífero de Subijana parte de la tubería es coincidente con la procedente de la EDAR y que se usa por la Mancomunidad de regantes de Arrato con lo que se ha planteado un protocolo de desinfección, seguido de pruebas de presión... Respecto a la toma de Araia se espera una autorización por parte del Ayuntamiento para ejecutar una reparación de un tramo, y el resto están funcionales.</p>
<p>Ibon Areso Mendiguren jaunak azaldu du Iparraldeko larrialdietarako sistemak erabiltzeko moduan daudela, eta Ebroko Ur-Konfederazioak laster emango duela baimena abian jartzeko.</p>	<p>D. Ibon Areso Mendiguren informa que los sistemas de emergencia del Norte están funcionales y que se espera que en breve la Confederación Hidrográfica del Ebro dé la autorización para poder ponerlas en funcionamiento.</p>
<p>Lehendakariak eskatu du eztabaida hori seigarren aztergairako uzteko, eta aztergai honen arlora eramateko eztabaida.</p>	<p>La Presidenta ruega que este debate se traslade al sexto punto del orden del día y que se centre el debate en la materia de este punto.</p>
<p>Azpimarratu du 2000/60/EB Zuzentzarauak plangintza hidrologikoa egiteko modu berri bat dakarrela, eta horrez gain, eskatu du plangintza horretan parte hartzeko. Hortaz, aztergai honetan aurkeztutako prozesuak aukera ematen du eztabaidatutako gaiak eta beste batzuk eztabaidatzeko. Gaineratu du, aurretik esan den bezala, ekarpenak jaso daitezkeela Planaren eztabaida-prozesuan parte hartuko duten eragileei dagokionez, 2007ko urtarrilaren erdira arte.</p>	<p>Incide en que la Directiva 2000/60/CE aporta una nueva forma de realizar la planificación hidrológica y además solicita que se participe en la planificación hidrológica. Por tanto, el proceso presentado en este punto del orden del día es una oportunidad para debatir los temas discutidos y otros. Añade que como ya se ha dicho se pueden recibir aportaciones en cuanto a agentes participes en el proceso de discusión del Plan hasta mediados de enero de 2007.</p>
<p>José María Sanz de Galdeano jaunak adierazi duenez, Batzordean aurkeztutako agiriak oniritzia jaso behar du, 2000/60/EB Zuzentzarauaren egutegiak berak ezartzen duelako 2006ko abendua dela partaidetza prozesua hasteko data.</p>	<p>D. José María Sanz de Galdeano indica que el documento presentado al Consejo debe recibir su conformidad puesto que el propio calendario de la Directiva 2000/60/CE establece que diciembre de 2006 es la fecha de inicio del proceso de participación.</p>
<p>Iñigo Elósegui Vallejo jaunak galdetu du prozesu hori eta plana bateragarriak diren erkidegoen arteko arloan beste organismo batzuek egingo dutenarekin, eta nork eman behar dion behin betiko onespena Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroetarako Plangintza Hidrologikoari.</p>	<p>D. Iñigo Elósegui Vallejo pregunta por la compatibilidad de este proceso y de su plan con lo que realice otros organismos en cuenca intercomunitarias; y sobre quien es el encargado de la aprobación definitiva del Plan Hidrológico de las Cuencas Internas del País Vasco.</p>
<p>Tomás Epalza jaunak esan du agiri horren bidez 2000/60/EB Zuzentzarauak ezarritako baldintzak bete nahi direla, erkidegoen arteko zein erkidegoko barne-arroetarako baliagarri izango den lan-metodologia erabilita, dagokionean</p>	<p>D. Tomás Epalza comenta que se pretende con este documento cumplir las exigencias de la Directiva 2000/60/CE mediante una metodología de trabajo que sirva tanto para las cuencas intercomunitarias como para las intracomunitarias, en</p>

<p>ekarpen gisa, eta Iparraldeko zein Ebroko Ur-Konfederazioekin koordinatuta. Erantzun du Euskal Autonomia Erkidego barruko arroetarako Plangintza Hidrologikoa, indarrean dagoen legeriaren arabera, Ministro Kontseiluak onetsi behar duela.</p>	<p>su caso como aportación y en coordinación con las Confederaciones Hidrográficas del Norte y del Ebro. Responde que el Plan Hidrológico de las Cuencas Internas del País Vasco según la legislación vigente es aprobado por el Consejo de Ministros.</p>
<p>José Antonio Zabala jaunak proposatu direnak baino tailer gehiago egitea proposatu du, Ebroko Ur-Konfederazioaren ereduari jarraituz.</p>	<p>D. José Antonio Zabala plantea la necesidad de mayor número de talleres que los planteados siguiendo el ejemplo que conoce de la Confederación Hidrográfica del Ebro.</p>
<p>José María Sanz de Galdeano jaunak esan du ez duela ezagutzen José Antonio Zabala jaunak adierazitako eskema, baina gobernu-batzordearen azken bilkuran azaldu zirela Ebroko Ur-Konfederazioak dituen proposamenak 2000/60/EB Zuzentarauaren baldintzak bete ahal izateko, eta prozesua Ebroko zein Iparraldeko Ur-Konfederazioen planteamenduei jarraituta antolatzen ari dela; are gehiago, Ebroko Ur-Konfederazioak gai hori EAEko Ebroko esparruan garatzeko eskatu duela. Bestalde, ulertzen du tailer bakoitzak egoki irizitako gaiak garatzea.</p>	<p>D. José María Sanz de Galdeano dice que desconoce ese esquema indicado por D. José Antonio Zabala, pero que en la última sesión de la Junta de Gobierno se expuso los planteamientos de la Confederación Hidrográfica del Ebro para hacer frente a estas exigencias de la Directiva 2000/60/CE y que se está planteando el proceso siguiendo los planteamientos de Confederación Hidrográfica del Ebro y del Norte, e incluso que por parte de Confederación Hidrográfica del Ebro se ha pedido que se desarrolle este tema en el ámbito Ebro de la CAPV. Entiende, por otro lado, que cada taller desarrollará los temas que considere oportunos.</p>
<p>Lehendakariak batzordekideei galdetu die aurkeztutako agiriarekin ados dauden. Batzordekideek adostasuna azaldu dute aho batez.</p>	<p>La Presidenta pregunta a los vocales del Consejo sobre su conformidad sobre el documento presentado. Los vocales del Consejo se pronuncian favorablemente de modo unánime.</p>
<p>Lehendakariak berretsi eta adierazi du Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Batzordearen onespena jaso duela <i>Uraren Esparru Zuzentarauaren planifikazio-prozesuan parte hartzeko programa, egutegia eta formulak</i> izeneko agiriak.</p>	<p>La Presidenta corrobora y declara que el documento <i>Programa, Calendario y Fórmulas de Participación del Proceso de Planificación Hidrológica de la Directiva Marco del Agua</i> obtiene la conformidad del Consejo del Agua del País Vasco.</p>
<p>Gai honi dagokionez ez da partehartze gehiagorik egon, eta hurrengo aztergaiak hitz egiteko aukera zabaldu da.</p>	<p>No se realizan más intervenciones y se pasa al siguiente punto del día.</p>
<p>Gai-zerrendako seigarren aztergaia: galderak eta eskaerak.</p>	<p>Sexto punto del orden del día: Ruegos y preguntas.</p>
<p>Lehendakariak eskariak eta galderak egiteko txanda ireki du.</p>	<p>La Presidenta abre un turno para ruegos y preguntas</p>
<p>Iñaki Fernández de Larrea Sáez de Asteasu jaunak, EHNEren izenean, gogorarazi du e-mail bidez eskabidea egin zuela Batzordeko aztergaietako bat ureztatzeen kudeaketa eta dauden ureztatzeei buruzko analisiak izateko, eta Batzordean eztabaidatzeko.</p>	<p>D. Iñaki Fernández de Larrea Sáez de Asteasu, en representación de EHNE, recuerda que vía e-mail hizo una solicitud para que fuera debatido en el Consejo como un punto del orden del día el tema de la gestión de regadíos y el análisis de los estudios de regadíos existentes.</p>
<p>Lehendakariak esan du, eragozpenik ez badago behintzat, aztergai hori hurrengo Batzordean eztabaidatu daitekeela.</p>	<p>La Presidenta considera que si no hay objeción este tema puede tratarse en el siguiente Consejo.</p>
<p>Tomás Epalza jaunak argitu duenez, e-mail bidez egindako eskaera bilkura hau baino bi egun lehenago jaso zen, eta ezin izan da formalki sartu aztergaien artean, baina hurrengo bilkurako aztergaien artean sartzeko asmoa dago.</p>	<p>D. Tomás Epalza aclara que la petición vía e-mail fue recibida sólo dos días antes de la celebración de esta sesión y que no ha sido formalmente posible incluirla en el orden del día, pero que se plantea incluirla en el siguiente orden del día.</p>

<p>Batzordeko idazkariak, batzordekideei bidaltzen zaien dokumentazioa dela eta, gogora ekarri du, gaur egun, ordezkaten dituzten erakundeetara bidaltzen dela, erakunde horiek izan daitezen dokumentazioa ordezkarietara edo horien ordezkarietara helaraziko dietenak. Adierazi du baten batek egoki ikusiz gero dokumentazioa pertsonetara bidaltzea erakundeetara bidali beharrean, posta elektronikoko bidez edo beste bideren batez, Batzordeko Idazkaritzara egiteko eskaera, hurrengoetan arazorik egon ez dadin Batzordean sortutako dokumentazioa aztertzeko denbora faltagatik.</p>	<p>La Secretaria del Consejo, respecto a la documentación que se remite a los vocales del Consejo, recuerda que actualmente se remite a las entidades que representan para que sean ellas las que le haga llegar la documentación a los vocales o a sus sustitutos. Indica que si alguno considera oportuno que se remita la documentación a personas en lugar de a las entidades, bien vía correo electrónico o por otra vía, que se dirija a la Secretaría del Consejo para que en posteriores ocasiones no haya problemas de falta de tiempo para el análisis de la documentación que se genera en el Consejo.</p>
<p>Alfonso García Alonso jaunak adierazi du dokumentazioa bidaltzeko gaur egun dagoen modua egokia dela, baina hobetu egin beharko litzatekeela, dokumentazio hori batzordekideetara zuzenean bidalita; horretarako, prest dago posta elektronikoko helbideak emateko. Uste du bilkura honetako deialdirako egon den arazoa larriagoa izan dela bidalketa egin denetik bilkura egin den egunera arte jai-egun asko egon delako.</p>	<p>D. Alfonso García Alonso comenta que siendo adecuada la forma actual de remisión de documentación, debería mejorarse con remisión directa a los vocales, para lo cual está dispuesto a facilitar direcciones de correo electrónico. Considera que el problema habido para la convocatoria de esta sesión se ha agravado por el número de días festivos habido desde la remisión hasta la celebración de esta sesión.</p>
<p>Iñaki Antigüedad jaunak ere eskatu du dokumentazioa posta elektronikoz helarazteko; horrela, modu egokiz jasoko du eta bere erakunde zabaldu ahal izango du. Horrez gain, eskatu du formatu digitalean bidaltzeko Uraren Esparru Zuzentaruaren planifikazio-prozesuan parte hartzeko programa, egutegia eta formulak izeneko agiria.</p>	<p>D. Iñaki Antigüedad también solicita que la documentación le sea facilitada por correo electrónico tanto para recibirla de forma adecuada como para poder transmitirla dentro de su institución. También solicita que le sea facilitado en formato digital el documento Programa, Calendario y Fórmulas de Participación del Proceso de Planificación Hidrológica de la Directiva Marco del Agua.</p>
<p>Lehendakariak jakinarazi dio agiri hori eskuragarri daukala Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko web orrian.</p>	<p>La Presidenta le informa que dicho documento esta a su disposición en la página Web del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.</p>
<p>Ana Oregi Bastarrika andreak esan du horiek eta beste alderdi batzuk hobetu egingo direla hurrengo deialdian, dokumentazioa batzordekideengana heltzeko behar besteko denboraz eta behar den moduan.</p>	<p>Dña. Ana Oregi Bastarrika considera que estos y otros aspectos serán mejorados en la siguiente convocatoria para que la documentación llegue a los miembros del Consejo oportunamente en tiempo y forma.</p>
<p>Batzordeko idazkariak gogorarazi du kideek Batzordera bertaratzegatik diru-ordaina jasotzeko eskubidea daukatela, baldin eta kide horien lanpostuak bertaratzeko eskatzen ez badu. Diru-ordaina jaso ahal izateko beharrezkoa da agiri batzuk aurkeztea, eta Batzordeko idazkariarekin jarri behar dira harremanetan hark izapidea errazteko.</p>	<p>La Secretaria del Consejo recuerda que la asistencia al Consejo da derecho a una compensación económica, excepto para los miembros que su puesto de trabajo así lo exija. Para tener acceso a ella es necesaria una documentación y que poniéndose en contacto con la Secretaria del Consejo se facilitará su tramitación.</p>
<p>Juan Carlos Fernandez Crespo jaunak, Osasun Saileko Arabako Osasun Publikoko zuzendariordeak, hornikuntza-sistemen ahultasunari buruzko eztabaidari dagokionez, azpimarratu du plangintza hidrologikoak berak eman behar dituela konponbideak kontsumoa kontrolatuz eta eskaintza eta</p>	<p>D. Juan Carlos Fernandez Crespo, Subdirector de Salud Pública de Álava del Departamento de Sanidad, respecto al debate sobre la fragilidad de los sistemas de abastecimiento incide en el hecho de la propia planificación hidrológica debe dar soluciones desde el control del consumo y desde la</p>

eskaeraren kudeaketa hobetuz.	mejora de la gestión de la demanda y de la oferta.
Tomás Epalza jaunak iritzi horrekin ados dagoela esan du.	D. Tomás Epalza muestra su acuerdo con esta opinión.
Ez da parte hartze gehiagorik egon, eta lehendakariak, aztergai gehiagorik ez dagoela jakinarazi ondoren, amaitutzat jo du bilkura.	No se realizan más intervenciones y la Presidenta, notificando que no hay más asuntos que tratar, levanta la sesión.

LA SECRETARIA DEL CONSEJO DEL AGUA DEL PAÍS VASCO

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO URAREN KONTSEILUKO IDAZKARIA

Esperanza Zurinaga Bañales

Vº Bº LA PRESIDENTA
LEHENDAKARIAK O.E.

Esther Larrañaga Galdos